

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRA ERATZEKO BILKURA**  
**2011-06-11**

2011ko ekainaren 11an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 12.30 orduetan, agintaldia bukatzean duen Alkate Lehendakariak egindako deialdian, joan den maiatzaren 22an egindako hauteskundeetan hautatutako behean aipatzen diren Zinegotziak bildu dira:

ZINEGOTZIAK: Xabier Mujika  
Igor Barandiaran  
Gotzon Jauregi  
Imanol Aranzabal  
Karlos Irazu  
Aritz Usandizaga  
Jon Tejeria

Ekitaldian parte hartzen du eta fede ematen du Udaleko Idazkari-kontuhartzaile lanetan ari den Ane Gomez Urteaga andreak.


Idazkariak adierazten du, batzarraldi honen helburua Udalaren eraketa dela, Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.1 artikulua eta Udal Korporazioetako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erreglamenduaren 37.1 artikulua agindutakoa betez, ondoko gairerrendaren arabera:

- Udal Kaxa eta bankuetako depositoen arkeoa.
- Adin mahaia osatzea.
- Korporazioa eratzea.
- Alkatea aukeratzea eta karguaren jabe egitea.

**1.-UDAL KAXA ETA BANKUETAKO DEPOSITOEN ARKEOA**

Idazkari Kontuhartzaileak 2011ko ekainaren hamaikan Udal Kaxa eta bankuetako depositoen arkeoaren berri ematen du.

- Udal Kaxan: 189,35€
- Kutxan: 43.799,39€



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

GUZTIRA: 43.988,74€

### 2.-ADIN MAHAIA OSATZEA

Ondoren, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.2 artikuluan aurrikusitakoa betez, adineko mahaia osatzen da ondorengo partaideekin:

- Gotzon Jauregi zinegotzi zaharrena denez, mahaiburu izango dena.
- Aritz Usandizaga zinegotzia gazteena delako.


Korporazioko Idazkaria, idazkari gisa arituko delarik.

Une honetan, Mahaikideek banan bana alde zurretik entregatutako kredentzial guztiak aztertzen dituzte, eta egiaztatzen dute zinegotzi hautatuaren nortasuna akreditatzen duten kredentzial horiek Zonako Hauteskunde Juntak udaletxera bere garaian bidali zituenekin bat datoztela.

### 3.KORPORAZIOAREN ERAKETA

Aurreko Operazioa egin ondoren eta kontutan izanik batzarraldi honetara hautatuak izan diren zinegotzi guztiak etorri direla, hau da, gehiengo absolutu legala, mahaiburuak zinegotziak gonbidatzen ditu azal dezatela kargu izendapenaren ondorioz bateraezintasun arrazoiren batek ukitzen dien, inongo azalpenik azaltzen ez delarik. Beraz adineko mahaia Udal Korporazioa eratutzat ematen du. Korporazioa eratutzat emanez, zinegotziek Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 108.8 artikulua ezarritakoa betetzen dute Hauteskundeen Legerian legalki ezarritako formula erabiltzen dutelarik.

Ondoren, apirilaren 18ko 781/1986 Erret. Dekretu Legegileak onetsitako Erregimen Lokalaren alorrean dauden legezko xedapenen Testu Bateratuko 86. artikulua eta ekainaren 13ko 1372/1986 Erret. Dekretuak onetsitako Udal Entitateen Ondasunei buruzko Erreglamenduko 33.2 artikulua xedatutakoa betez, alde zurretik zinegotzi guztiak zeukaten Udal Ondasunen Inbentarioari buruz edozein oharpenik egiteko aukera ematen zaie, inongo alegaziorik azaltzen ez delarik.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 4.-ALKATEA AUKERATZEA

Bertan daudenei, Idazkari andreak adierazten die martxoaren Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluan xedatzen denaren arabera, Korporazioa eratu den batzarraldi berdinean Alkatea aukeratu behar dela, lege horretan ezarritako prozedurari jarraituz:

- Zinegotzi guztiak dira hautagai.
- Bertan dauden hautatutako zinegotzi guztiak dira hautesle.
- Aukeraketa bozketa bidez egingo da, botazio bakarra eginez.
- Botuen gehiengo absolutu legala lortzen duen hautagaia izango da hautatua, beraz gutxienez 4 botu beharko dira.
- Botazio honetan inork ez badu gehiengo absolutoa lortzen, hauteskundeetan botu kopururik handiena lortu duen zinegotzi hautatua automatikoki Alkate aldarrikatuko da.

Ondoren Karlos Irazu zinegotziak ondorengo idatzia irakurtzen du:


#### **Herri Aukera eta Larraul Aurrera taldearen arteko akordio proposamena**

1.-Ikusirik Larraulgo Udala lehenengo aldiz bi talderen ordezkariekin osaturik egongo dela, funtzionamendu orokorra aldeztu aurretik adostea da Herri Aukera taldearen asmoa. Zentzu honetan, gure proposamena da orain arte bezala gaien tratamendua eta ondorengo erabakiak zinegotzi guztiak egongo diren asteroko bileretan lantzea eta udaleko zazpi ordezkariak benetazko talde egitura osatzea.

2.-Datorren legislaturan zehar landuko diren egitasmo nagusiak bai herritarrek eta Udalak bateratuta izateko asmoarekin, lau urterako helburu eta ekintzen kalendario bat osatzea proposatzen degu, Udaleko ordezkari eta herritarren aportazioekin, urte bukaerako edo 2012 aurrekontuak onartzerako gutxienez.

3.-Larraulgo Udalaren gestioa errezteko asmotan eta bilera bakoitzean erabakitakoaren konstantzia izateko proposatzen degu bilera guztien aurretik gai zerrenda bidaltzea eta bileren akta jasotzea.

4.-Larraul Aurrera taldeak oinarrizko funtzionamendu hau begi onez ikusi eta martxan jartzera konprometitzen bada, inbestidura saioan Herri Aukera taldeak Xabi Mujika hautagaiaren aldeko botoa emango du.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Zinegotzi guztiak Karlos Irazu zinegotziak irakurritako idatzia onartzen dute.

Aurrekoa kontutan izanda, zerrendatzen den Zinegotzia proposatu da Alkatetzako hautagia izateko:

- Xabier Mujika Pagola

Bozketa egin dute eta emandako botuen kontaketa burutu ondoren, honako emaitza lortu da:

-Xabier Mujika Pagolaren aldekoak, 7 boto.

Bozketa honen emaitza ikusirik, Xabier Mujika Pagola Jauna zinegotzi hautagaia Udal honetako Alkatea aldarrikatzen da, 7 botu horiekin gehingo absolutu legala osatzen duelako.

Jarraian, Xabier Mujika Pagola Jaunak Udaleko Alkate kargua onartzen duela adierazten du, eta hauteskunde legeriak ezarritako formularen arabera promesa egin ondoren, korporazioko Udal Batzarraren aurrean karguaren jabetza hartzen du, indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten prerrogatiba, eskubide eta betebeharrak guztiekin.

Eta besterik gabe, 12.50etan, Alkate jaunak Korporazioaren eraketa ekitaldia amaitutzat ematen du.